

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak kontuz ibiltzea eskatu du, baso- sute bat gertatzeko arrisku handia dagoelako lurralde osoan

*Zigarrokinak ez botatzea, baso-ibilbidetik ez ibiltzea eta ahal den lekuetan bakarrik, sastraka lehorretatik urrun, aparkatzea gomendatu du*

Astelehena, 2017.eko abuztuak 21

Nafarroako Gobernuak kontuz ibiltzea eskatu die herritarrei, eta oso bereziki oporretan landa-inguruetan dauden eta hortik bizi diren pertsonei, izan ere, hurrengo egunetan baso-sute bat gertatzeko [arrisku osoa handia](#) dagoelako, [tenperatura altuak](#) aurreikusi baitituzte eta lurra lehor dagoelako. Bereziki, bihar, asteartea, arriskua muturrekoa izango da Ebroko ardatzean, Lizarrerrian, Kantauri isurialdean eta Pirinioetan.



Helikoptero batek ura botatzen du aurreko sute batean.

Horrez gain, gogoratu du suaren erabilerari buruz [aurreikusitako murrizketak](#) indarrean daudela, udan, nekazaritza eta baso lurzoruetan, suteak saihesteko prebentzio-neurri gisa. Debekuen artean, ezin da surik egin aisialdirako (barbakoak) hegoaldean, ez eta egin daitezkeen lekuetan ere; ezin da errekuntzako motorrak erabiltzen dituzten ibilgailuekin ibili baso-pistetatik eremu geografiko honetan, eta azkenik, ezin dira galondoak eta basoko hondakinak erre lehorreko nekazaritza-lurretan.

Nafarroako Gobernuak nabarmendu du ezin dela zigarrokini, pospororik eta landa-eremuan arriskua izan dezaketen bestelako objekturik bota. Halaber, ezin da hondakinik utzi ezin den leku batean.

Baso-inguruetatik ibiliko diren pertsonei Nafarroako Gobernuak gogoratzen die lurra ongi ezagutzea komenigarria dela, eta ezin direla ibili ibilgailu motordunekin uzten den lekuetan, beharrezkoa ez bada, ihes-hodiak sastrakak ukitzen baditu, sute bat eragin dezakeelako.

Bestalde, mendizaleei zirkuituetatik ez ateratzea eta ibilgailuak prest dauden aparkalekuetan edo larre edo sastrakarik ez duten eremuetan aparkatzea eskatu die.

Basoan suterik ikusten bada, lehenbailehen deitu behar da SOS Navarraren 112 telefonora, tokia eta bide egokienak adieraziz, suhiltzaileak hara joan daitezzen.

Azkenik, herritar bat sute batetik hurbil badago, Nafarroako Gobernuak urruntzea aholkatzen du, hegaletatik eta eremu baxuenetatik, soilgune batera edo zuhaitzik eta sastrakarik ez dagoen eremu batera joatea, eta beti haizearen norabidearen kontra egitea.